

KARMELE MUÑO A ARRIGAIN andreak, Bermeoko Udaleko jarduneko idazkariak,

ZIURTATZEN DOT:

2010eko apirilaren 14an **Tokiko Gobernu Batzarrak** erabagi hau agindu dauela:

7.- BERMEOKO AUZO-GUNEETARAKO UR HORNIDUREA ALMIKAKO UETE-TIK (IV. FASEA) BEHIN BETIKO ESLEITZEA

Xedea

Bermeoko auzo-guneetarako ur hornidurea Almikako UETE-tik (IV. Fasea) behin betiko esleitzea

Aurrekariak

Lehenengoa: 2010eko martiaren 24an Tokiko Gobernu Batzarrak Bermeoko auzo-guneetarako ur hornidurea Almikako UETE-tik (IV. Fasea) obra behin-behinekoz esleitzea erabagi eban.

Bigarrena: 2010eko martiaren 29an behin-behineko esleipena kontratugilearen profilean argitaratu zan.

Argudioak

Bakarra: Behin-behineko esleipenaren iragarkia legeak agintzen dauen denporan egon da iragarrita eta, epe horretan, ez da alegaziorik ez erreklamaziorik jaso. Bestalde, behin-behinekoz proposatutako esleipendunak, emondako epearen barruan bere eginbeharrak bete dauz, eta ondorioz, legezko urrats guztiak bete dira, behin-behineko esleipena behin betiko bihurtzeko.

Erabagia

Goian aitaturako guztia kontuan hartuta, aho batez, honako hau erabagi dau Tokiko Gobernu Batzarrak:

LEHENENGOA: Bermeoko auzo-guneetarako ur hornidurea Almikako UETE-tik (IV. Fasea) obra behin betiko esleitzea era honetan:

ENPRESEA: URRE, SA (IFZ: A-48108724)

PREZIOA: 148.354,55 euro (BEZa kanpo). BEZari jagokon zenbatekoa 23.736,73 €-koa da. Guztira, 172.091,28 €.

EJEKUZIO EPEA: Lau hilabete.

OBRA HONETAN LAN EGINGO DABEN LANGILEAK: 5 langile. Horreetatik 2 langabeziatik kontratatutakoak izango dira.

HOBAKUNTZAK: Kontratuan jaso beharko dira enpresak aurkeztutako hobakuntza guztiak.

Esleipendunari jakinarazotea 10 laneguneko epean, kontratua sinatu beharko dauela eta, holan egin ezean, udalak kontratua bertan behera itxi ahal izango dauela.

BIGARRENA: Enpresa esleipendunari jakinarazotea hamar (10) laneguneko epean, behin betiko esleipenaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, kontratua sinatu beharko dauela, eta holan egin ezean udalak kontratua bertan behera itxi ahal izango dauela.

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, alkate jaunaren aginduz eta onetsiaz, ziurtagiri hau idazten dot, eta bere xedea dan erabagia onartu barik dagoan akta batean dagoala adierazoten deusut, behin betiko onespeneraren menpean dagoela ohartarazota, Bermeon, 2010eko apirilaren 19an.

ONETSIA
ALKATEA